## Zk-775

EBAZPENA, EHUko errektorearena, behin behineko Gobernu Kontseiluak 2004ko otsailaren 3an hartutako erabakia betetzeko dena. Erabaki horren bidez, Errektorea hautatzeko araudia eta estatutuetako hirugarren xedapen iragankorrari jarraituz deitutako hauteskundeetarako egutegia onartu ziren.

AURREKARIAK

2004ko urtarrilaren 12an Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian abenduaren 23ko 322/2003 Dekretua argitaratu zen, Euskal Herriko Unibertsitateko Estatutuak onartu zituena.

Estatutuetako hirugarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du:

«2. Estatutuok indarrean jartzean errektorea aukeratzeko hauteskundeetarako deia egingo da, Gobernu Kontseiluak ezarritako egutegi eta prozedurari jarraiki. Nolanahi ere, hautesleen errolda 2003ko azaroaren hamalauan itxiko da behin betiko, eta bozketa 2003ko abenduko lehen hamabostaldian egingo da.

3. Era berean, errektorea hautatzen den egunean Klaustroa berritzeko hauteskundeak ere egingo dira. Klaustro berria eratzeko bileran Gobernu Kontseiluko kide izango diren klaustrokideak ere hautatuko dira.

Xedapen horren arabera, behin-behineko Gobernu Kontseiluari dagokio errektorea hautatzeko hauteskundeetako egutegia zehaztea, bai eta prozesu horretarako eta aurrerantzean egingo direnetarako araubidea onartzea ere. Hori guztia egiteko hilabeteko epea dago bigarren xedapen gehigarriari jarraituz.

Errektorea hautatzeko araudiak Estatutuetako 249. artikulua garatzen du. Artikulu horretan jasota daude sufragio unibertsal haztatu bidezko hauteskunderako ildo nagusiak, kontuan izanda boto haztatuak Estatutuetako 234. artikuluan egindako banaketa eta ehunekoen araberakoak izango direla. Araudi horretan zehaztuta daude hauteskunde administrazioko organoak eta prozedurako tramite guztiak. Epeak, bestalde, behin-behineko Gobernu Kontseiluak onartutako egutegiaren araberakoak izango dira. Asmoa da bai hirugarren xedapen iragankorraren bidez deitutako hauteskundeetarako egutegia, bai etorkizunean egingo diren beste batzuena, hauteskundeak behar bezala egitea eragotz ditzaketen zenbait gorabeheretara egokitzea (jai egunak, oporraldiak, azterketa garaia...).

Araudian badago berrikuntzarik, eta bat da nagusi, izan ere, Gobernu Kontseiluak laguntza eman beharko die hautagaiei: batetik laguntza ekonomikoa emango du hauteskundeko ekintzetarako (propaganda orrietarako, karteletarako, programetarako...); bes-

## N°-775

RESOLUCIÓN del Rector de la UPV/EHU, por la que se ejecuta el Acuerdo del Consejo de Gobierno Provisional, en su sesion de 3 de febrero de 2004, por el que se aprueba el reglamento de elección del Rector y se establece el calendario de las elecciones convocadas por la disposición transitoria tercera

ANTECEDENTES

Mediante Decreto 322/2003, de 23 de diciembre, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco el 12 de enero de 2004, se han aprobado los Estatutos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

La Disposición transitoria tercera de los Estatutos dispone que:

«2. A la entrada en vigor de estos Estatutos quedan convocadas elecciones a Rector, de acuerdo con el calendario y procedimiento establecidos por el Consejo de Gobierno. En todo caso, el cierre definitivo del censo se realizará con fecha catorce de noviembre de 2003, teniendo lugar la votación durante la primera quincena del mes de diciembre de 2003.

3. Asimismo, en idéntica fecha a la de la elección del Rector, se celebrarán las elecciones para la renovación del Claustro. En la sesión constitutiva del nuevo Claustro se procederá a la elección de los correspondientes miembros del Consejo de Gobierno.»

Según esta Disposición corresponde al Consejo de Gobierno provisional establecer el calendario y aprobar el Reglamento de elección del Rector, que regulará éstas y posteriores elecciones. Todo ello deberá realizarse en el plazo de un mes, tal como establece la Disposición transitoria segunda.

El Reglamento de elección del Rector desarrolla el artículo 249 de los Estatutos. En ese artículo se establecen las líneas maestras de la elección mediante sufragio universal ponderado según los porcentajes establecidos en el artículo 234 de los Estatutos para cada uno de los cuatro cuerpos electorales. Así, en este Reglamento se regulan los distintos órganos de la administración electoral, y cada uno de los trámites que componen el procedimiento, cuyos plazos se difieren generalmente a lo que se establezca en el calendario que apruebe el Consejo de Gobierno provisional. Se pretende que tanto el calendario que regule las elecciones convocadas por la Disposición transitoria tercera, como los de futuros procesos electorales, puedan acomodarse a las diversas circunstancias (días festivos, períodos vacacionales, de exámenes, etc.) que pudieran afectar el buen desarrollo de un proceso electoral.

Entre otras novedades, hay que destacar la regulación de la ayuda que debe prestar el Consejo de Gobierno a la campaña electoral de los candidatos, que tiene dos vertientes, una económica, mediante la subvención de actividades electorales (folletos, carteles, programas,

tetik, EHUren komunikazio sarea erabili ahal izango dute.

Bukatzeko, boto kutxa elektronikoaren erabilera (DEMOTEK) ere arautu da. Sistema hori lehenago ere erabili izan dugu Unibertsitateko Klaustrokoan: fidagarria da, eta botoak unean bertan zenbatzen direnez, emaitzak boto kutxak itxi eta gutxira jakin daitezke, eta hori oso baliagarria da oraingo honetan, emaitzen arabera bigarren txanda ere egin beharko da eta. Horrez gain, erraztu egiten du Hauteskunde Mahaiko kideen lana, eta oraingoan egun berean bi hauteskunde daudenez, oso lagungarri izango dute.

Hori guztia kontuan hartuta, honakoa

EBATZI DU:

*Lehenengoa.–* Agindua ematea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko EHUko behin-behineko Gobernu Kontseiluak 2004ko otsailaren 3an egindako bileran hartutako erabakia. Izan ere, erabaki horren bidez errektorea hautatzeko araudia onartu zen I. eranskinean jasotako moduan.

*Lehenengoa.–* Agindua ematea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko EHUko behin-behineko Gobernu Kontseiluak 2004ko otsailaren 3an egindako bileran hartutako erabakia. Izan ere, EHUko Estatutuetako hirugarren xedapen gehigarriari jarraiki, erabaki horren bidez errektorea hautatzeko hauteskundeetako egutegia onartu zen, II. eranskinean ageri den legez.

*Hirugarrena.–* Araudi hau argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Leioa, 2004ko otsailaren 3a.

EHUko ERREKTOREA,
MANUEL MONTERO GARCÍA.

## I. ERANSKINA

## ERREKTOREA HAUTATZEKO ARAUDIA

### HITZAURREA

Araudi honetan gaztelaniazko testuan aipatutako izen guztiak (gobernu organoak, ordezkaritzak, karguak, eginkizunak eta unibertsitateko kideak) eta genero maskulinoan agertzen diren gainerakoak femeninoan ere ulertuko dira, kasuan kasuko titularraren sexuaren arabera.

etc.) y otra institucional, facilitando el acceso a los candidatos a la red de comunicaciones corporativa de la UPV/EHU.

Por último, se regula la posibilidad de utilización de la urna electrónica (DEMOTEK). Este sistema, cuya fiabilidad ha quedado demostrada en las distintas ocasiones que ha sido utilizado por el Claustro Universitario, permite el recuento inmediato de los votos, y por consiguiente, conocer los resultados de las elecciones al poco tiempo del cierre de las urnas, dato especialmente útil en el caso de que haya de celebrarse la segunda vuelta. Además facilita la labor a los miembros de las distintas Mesas electorales, ayuda que en este caso viene a paliar la carga que supone el tener que celebrar dos comicios el mismo día.

Por todo ello,

RESUELVO

*Primero.–* Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Acuerdo del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU de 3 de febrero de 2004 por el que se aprueba la Normativa para la elección del Rector, en los términos recogidos en el Anexo I.

*Segundo.–* Ordenar la publicación en el Boletín Oficial del País Vasco del Calendario de las elecciones a Rector que se convocan en la Disposición transitoria tercera de los Estatutos, en los términos recogidos en el Anexo II, aprobado por el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU de 3 de febrero de 2004.

*Tercero.–* Esta Normativa entrará en vigor el mismo día de su publicación.

En Leioa, a 3 de febrero de 2004.

El Rector de la UPV/EHU,
MANUEL MONTERO GARCÍA.

## ANEXO I

## REGLAMENTO DE ELECCIÓN DEL RECTOR

### PREÁMBULO

Todas las denominaciones contenidas a lo largo del presente Reglamento referidas a órganos de gobierno, representación, cargos, funciones y miembros de la Comunidad Universitaria, así como cualesquiera otras que se efectúan en género masculino, se entenderán hechas indistintamente en género femenino, según el sexo del titular que los desempeñe.

I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

ARAUDI HONEN HELBURUA

*1. artikulua.–*

Araudi honen helburua da errektorea hautatzeko hauteskundeak arautzea EHUko Estatutuetako 249. artikuluan zehaztutakoari jarraituz (EHUko Estatutuak 2003ko maiatzaren 21ean onartu zituen unibertsitateko Klaustroak, eta abenduaren 23ko 322/2003 Dekretuaren bidez argitaratu ziren EHAAn, 2004ko urtarrilaren 12an argitaratu ere).

HAUTAGAIAK ETA HAUTATZEKO ERA

*2. artikulua.–*

Errektorea unibertsitateko kideek hautatuko dute, hautaketa zuzenaz eta sufragio unibertsal, libre eta sekretuaz. Errektore izateko hautagai izan ahalko dira UPV/EHUn jardunean dauden eta arduraldi osoa daukaten unibertsitateko katedradunen kidegoko irakasle funtzionarioak.

HAUTESLEAK

*3. artikulua.–*

1. Hautesle izango dira Euskal Herriko Unibertsitatean zerbitzuak betetzen dituzten guztiek, beti ere hauteskundeetarako deian errolda ixteko zehaztutako egunean jardunean badaude; era berean, ikasleak ere izango dira hautesle hurrengo artikuluan zehaztutako taldeetako erroldaren batean agertzen baldin badira.

2. Hauteskundeetan botoa emateko edo hautagai izateko baldintzak hauteskundeetarako deian errolda ixteko zehaztutako egunean bete behar dira.

HAUTESKUNDEETAKO TALDE BANAKETA

*4. artikulua.–*

1. Errektorea hautatzeko hauteskundeetarako, unibertsitateko kideak sailkapen honen arabera egongo dira banatuta:

d) Irakasle funtzionario doktoreak, hau da: unibertsitateko katedradunen kidegoetakoak; unibertsitate eskoletako katedradunen kidegoetakoak; unibertsitateko irakasle titularrak; eta unibertsitate eskoletako irakasle titularrak, baldin eta doktore titulua badute. Era berean, talde honetakoak izango dira aipatutako kidegoetako bitarteko irakasle doktoreak.

e) Irakasle funtzionario ez doktoreak: doktore titulua ez daukaten unibertsitate eskoletako irakasle katedradunak eta unibertsitate eskoletako irakasle titularrak; irakasle laguntzaileak, irakasle laguntzaile doktoreak eta irakasle elkartuak, administrazio edo lan kon-

TITULO I. DISPOSICIONES GENERALES

OBJETO DEL REGLAMENTO

*Artículo 1*

Esta normativa tiene por objeto la regulación de la elección a Rector de acuerdo con lo previsto en el artículo 249 de los Estatutos de la UPV/EHU aprobados por el Claustro de la Universidad el 21 de mayo de 2003 y publicados por Decreto 322/2003, de 23 de diciembre, en el BOPV de 12 de enero de 2004.

ELEGIBLES Y MODO DE ELECCIÓN

*Artículo 2*

El Rector será elegido por la Comunidad Universitaria, mediante elección directa y sufragio universal libre y secreto, entre los Profesores funcionarios del Cuerpo de Catedráticos de Universidad, en activo, que presten en la UPV/EHU sus servicios con dedicación completa.

ELECTORES

*Artículo 3*

1. Serán electores todas las personas que presten sus servicios en la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea a la fecha del cierre de censo fijado en la publicación de la convocatoria de las elecciones así como los estudiantes, que figuren incluidos en el censo de uno de los sectores establecidos en el artículo siguiente.

2. Los requisitos exigidos para ejercer el derecho de sufragio activo o pasivo deberán reunirse en la fecha de cierre de censo fijado en la convocatoria de las elecciones.

SECTORES ELECTORALES

*Artículo 4*

1. A efectos de la elección del Rector, cada miembro de la Comunidad Universitaria se incluirá en uno de los cuatro sectores siguientes:

a) Profesores funcionarios doctores, en el que se integrarán los pertenecientes a los Cuerpos de Catedráticos de Universidad, Catedráticos de Escuela Universitaria, Profesores Titulares de Universidad, y los Profesores Titulares de Escuela Universitaria que tengan el título de Doctor. Así mismo, se incluirán en este sector los profesores doctores interinos de los Cuerpos anteriores.

b) Profesores funcionarios no doctores y contratados, en el que se integrarán los que pertenezcan al cuerpo de Profesores Catedráticos de Escuela Universitaria y de Profesores Titulares de Escuela Universitaria que no tengan la condición de doctor, los ayudantes, profeso-

tratu bidez unibertsitateari lotuta daudenak; irakasle kontratatu doktoreak; irakasle emerituak; Ramón y Cajal Programaren bidez kontratatuak; eta aurreko paragrafoan zehaztu ez diren irakasle eta ikerlariak.

f) Ikasleak, honako titulu ofizialen batean matrikulatuak: 1., 2. edo 3. zikloan; unibertsitateko berezko tituluetan; eta Giza Zientzietako unibertsitate tituluan. Hirugarren zikloko ikasletzat honakoak hartuko dira: doktoregoko programaren batean matrikula egina dutenak; ikertzeko gaitasuna aitortuta izanik eta tesi proiekturako matrikula egina izanik, ez dutenak tesiaren defentsa egin, horretarako epearen barruan egonda.

d) Administrazio eta zerbitzuetako pertsonala: EHUn zerbitzuak betetzen ari diren funtzionarioak eta lan kontratuko langileak; beste administrazio publiko batzuetakoak izanik, indarreko legediari jarraiki EHUn zerbitzuak betetzen ari diren langileak; eta lanpostuen zerrendan ageri diren konfiantzazko langileak.

2. Irakaslea edo administrazio eta zerbitzuetako pertsonala era berean ikasle ere bada, edo administrazio eta zerbitzuetako pertsonala era berean irakasle ere bada, irakasleen taldean edo administrazio eta zerbitzuetako pertsonalaren taldean baino ezin izango du eman botoa, kasuan-kasuan dagokionaren arabera. Zalantzarik balego, jarduera nagusia betetzen duen taldean emango du botoa.

3. Ez dira hautesle izango atxikitako zentroetako ikasleak, administrazioko pertsonala eta irakasleak.

4. Hautesleek kasuan kasuko hauteskunde mahaian emango dute botoa; dena dela, botoa aldez aurretik emateko eskubideari buruz zehaztutakoa ere izan beharko da kontuan.

II. TITULUA. HAUTESKUNDE ADMINISTRAZIOA

HAUTESKUNDE BATZORDE NAGUSIA

***5. artikulua.–***

1. Erretorea hautatzeko hauteskundeetarako deia egin bezain laster, Hauteskunde Batzorde Nagusia eratuko da.

2. Euskal Herriko Unibertsitateko Hauteskunde Batzorde Nagusiari dagokio erretorea hautatzeko hauteskundeak antolatzea, kontrolatzea, emaitzak aldarrikatzea eta horren guztiaren inguruan egindako inpugnazioak ebaztea.

3. Honakoak izango dira Hauteskunde Batzorde Nagusiko kideak: erretorea (batzordeburua izango da); idazkari nagusia; hauteskunde taldeetako kide bana, Gobernu Kontseiluko kideen artetik zozketaz aukeratuak. Talde bakoitzerako titularra eta bi ordezko auke-

res ayudantes doctores, y profesores asociados, vinculados a la Universidad por una relación contractual administrativa o laboral, profesores contratados doctores, profesores eméritos, los contratados a través del Programa Ramón y Cajal, así como otro personal docente o investigador no previsto en el apartado anterior.

c) Estudiantes matriculados en alguna de las titulaciones oficiales de 1er, 2º o 3er ciclo, o en Títulos Propios de la Universidad, y en el Título Universitario de Ciencias Humanas. Se entenderá como alumno de tercer ciclo aquel que esté matriculado en un programa de doctorado o aquel que esté en posesión de la suficiencia investigadora y tenga matriculado el proyecto de Tesis sin que haya procedido a su defensa, no habiendo expirado el plazo para hacerlo.

d) El sector del personal de administración y servicios está integrado por personal funcionario y personal contratado laboral de la UPV/EHU, personal funcionario de otras Administraciones Públicas que, de acuerdo con la legislación vigente, presten servicio en la UPV/EHU y el personal eventual que figure con tal carácter en la Relación de Puestos de Trabajo.

2. Cuando un profesor o un miembro del personal de administración y servicios sea a su vez alumno, o un miembro del personal de administración y servicios sea a su vez profesor solo podrá votar en el estamento profesoral o de personal de administración y servicios, según corresponda. En caso de duda, prevalecerá el sector en el que preste su actividad principal.

3. No serán electores los estudiantes, personal de administración y profesorado de centros docentes adscritos.

4. Todo elector ejerce el derecho de sufragio en la Mesa Electoral que le corresponde, sin perjuicio de las disposiciones sobre el Depósito de voto.

TITULO II. LA ADMINISTRACIÓN ELECTORAL

LA COMISIÓN ELECTORAL GENERAL

***Artículo 5***

1. Inmediatamente después de convocadas las elecciones a Rector, se procederá a constituir la Comisión electoral general.

2. La organización, control, proclamación de resultados y resolución de las impugnaciones del proceso de elección de Rector corresponderá a la Comisión electoral general de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

3. La Comisión electoral general estará integrada por el Rector, que la preside, por el Secretario General y por un representante de cada cuerpo electoral miembro del Consejo de Gobierno, designados por sorteo. Se sortearán titulares y dos suplentes por cada uno de ellos. A

ratuko dira. Zozketa horretarako, behin-behineko Gobernu Kontseiluko kide guztiak dagozkien taldeetan banatuko dira.

4. Aukeratutako kideren bat errektore izateko hautagai bada, kargua utzi eta ordezkoa izendatuko da batzorderako. Errektoreari ordezkoa egiteko Estatutuetako 251. artikuluan zehaztutakoari jarraituko zaio.

5. Hauteskunde Batzorde Nagusiak gehiengo soilaren bidez hartuko ditu erabakiak; berdinketa dagoenean batzordeburuaren botoak erabakiko du.

6. Hauteskunde Batzorde Nagusiaren egoitza Idazkaritza Nagusia izango da, eta eginkizunak egoki betetzeko behar dituen baliabide guztiak izango ditu.

7. Arautegi honetako idatzi eta agiri guztiak Hauteskunde Batzorde Nagusiko buruari zuzendu beharko zaizkio, eta Unibertsitateko Erregistro Nagusian aurkeztu beharko dira, erregistroak daukan ordutegiaren barruan.

8. Hauteskunde Batzorde Nagusiak ahalmena dauka araudi hau eta hauteskunde prozesu honi ezar dakizkiokeen gainontzekoak interpretatu eta ezartzeko.

BARRUTIKO HAUTESKUNDE BATZORDEA

*6. artikulua.–*

1. Errektorea aukeratzeko hauteskunde eguna behin zehaztuta, hauteskunde batzorde bana eratuko da ikastegietan. Batzorde hori barrutiko hauteskunde talde bakoitzeko (4.1. artikuluan zehaztutako eran egongo dira banatuta taldeak) kide batez osatuta egongo da, ikastegiko batzarreko kideen artetik aukeratua. Batzorde burua dekano edo zuzendaria izango da, eta idazkaria, berriz, idazkari akademikoa.

2. Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalak (AZP) campus bakoitzean izango duen hauteskunde batzordeko burua gerentea edo horrek eskuordetutako pertsona izango da, eta adineko mahai batez osatuta egongo da.

HAUTESKUNDE BATZORDE NAGUSIAREN ESKUMENAK

*7. artikulua.–*

Hauteskunde Batzorde Nagusiaren eskumenak dira:

k) behin betiko errolda onartzea;

l) hautagaiak aldarrikatzea 16. artikuluan zehaztutakoari jarraituz;

m) ikastegietako mahaien kokalekua onartzea, ikastegiko dekano edo zuzendariaren proposamenari jarraituz;

estos efectos todos los miembros del Consejo de Gobierno provisional se incluirán en su correspondiente cuerpo electoral.

4. En el caso de que alguno de ellos presentara su candidatura a Rector, cesará automáticamente siendo sustituido por su suplente. El Rector será sustituido según lo dispuesto en el artículo 251 de los Estatutos.

5. La Comisión electoral general adoptará sus acuerdos por mayoría simple; en caso de empate, decidirá el voto del Presidente.

6. La Comisión electoral general tendrá su sede en la Secretaría General de la Universidad, y dispondrá, a lo largo de todo el proceso, de los medios adecuados para cumplir sus funciones.

7. Todos los escritos y documentos previstos en este Reglamento irán dirigidos al Presidente de la Comisión electoral general y habrán de presentarse obligatoriamente en el Registro General de la Universidad, dentro del horario del mismo.

8. La Comisión electoral general de la Universidad tendrá facultades para interpretar y aplicar este Reglamento y las demás normas aplicables a este proceso electoral.

COMISIÓN ELECTORAL DE DEMARCACIÓN

*Artículo 6*

1. Una vez fijada la fecha de votación, para la elección del Rector se constituirá en cada centro una Comisión electoral, compuesta por un representante de cada cuerpo electoral de esa demarcación, conforme quedan configurados en el artículo 4.1., que en los centros académicos se designará de entre los miembros de su Junta, que será presidida por el Decano o Director, o persona en quien delegue y actuará de secretario el Secretario Académico del centro.

2. La Comisión electoral del personal de administración y servicios (PAS) de cada Campus estará presidida por el Gerente o persona en quien delegue y formada por una Mesa de edad.

COMPETENCIAS DE LA COMISIÓN ELECTORAL GENERAL

*Artículo 7*

Compete a la Comisión electoral general:

a) Aprobar el Censo definitivo.

b) Proclamar los candidatos en los términos establecidos en el artículo 16.

c) Aprobar la ubicación de las Mesas que habrán de constituirse en cada centro a propuesta del Decano o Director del centro.

n) hauteskunde mahaiek egindako galderak ebaztea;

o) errektore izateko hautagai hautetsia aldarrikatzea;

p) hauteskunde mahaiko botazioa baliogabetzea, eta beste hauteskunde prozesu bat irekitzea 24. artikuluan zehaztutakoari jarraituz.

q) kexak, erreklamazioak eta errekurtsoak ebaztea, araudi honi jarraituz;

r) Gobernu Kontseiluak zehaztu ez arren, hauteskunde prozesua behar bezala betetzeko beharrezko diren gainontzeko jarduketak;

s) hauteskunde mahaiko kide izateari uko egiteko aurkeztutako arrazoiak aztertzea.

t) hautagaien kanpainako gastuak gainbegiratzea.

III. TITULUA. HAUTESKUNDEETARAKO DEIA ETA PROZEDURA

HAUTESKUNDEETARAKO DEIA

*8. artikulua.–*

1. Agintaldia amaitu baino hilabete lehenago, Gobernu Kontseiluak errektorea hautatzeko hauteskundeetarako deia egingo du.

2. Kargua uzteko arrazoia Estatutuetako 250. artikuluan zehaztutako besteren bat bada, hauteskundeetako deia egiteko epea 20 egun baliodunekoa izango da, errektoreak kargua uzten duen egunetik kontatzen hasita.

3. Gobernu Kontseiluaren erabakiak ez du indarrik izango Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu arte.

HAUTESLE ERROLDAK

*9. artikulua.–*

1. Idazkaritza Nagusiak hautesleen behin-behineko errolda osatuko du, pertsonaleko zerbitzuek eta akademi gestiokoek emandako zerrendak oinarri hartuta. Ondoren, errolda argitaratzeko agindua emango du eta Erektoregoko iragarki oholean, campusetako errektoreordetzakoetan eta ikastegi guztietakoan jarri beharko da Gobernu Kontseiluak hauteskundeetarako onartutako egutegiaren arabera. EHUko moderatzailearen bidez ere emango da jakitera.

2. Behin-behineko erroldari buruzko erreklamazioak Hauteskunde Batzorde Nagusiari zuzendu beharko zaizkio, hauteskundeetarako egutegian jasotako epearen barruan; erreklamaziook Unibertsitateko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira. Hauteskunde Batzorde Nagusiak lau egun baliodun izango ditu erreklamazioak ebazteko, eta, ondoren, behin betiko errolda onartu eta argitaratzeko agindua emango du.

d) Resolver las consultas que le formulen las Mesas Electorales.

e) Proclamar el candidato electo a Rector.

f) Declarar la nulidad de la elección en una o más Mesas Electorales, y proceder a la reapertura del proceso electoral en esas Mesas, conforme al artículo 24.

g) Resolver las quejas, reclamaciones y recursos que se le dirijan de acuerdo con las presentes normas.

h) Cualquier otra actuación que sea procedente para el adecuado desarrollo del proceso electoral y no haya sido determinada previamente por el Consejo de Gobierno.

i) Apreciar las causas de renuncia como miembro de una Mesa Electoral.

j) Supervisar los gastos de campaña de los candidatos.

TITULO III. CONVOCATORIA Y PROCEDIMIENTO ELECTORAL

CONVOCATORIA

***Artículo 8***

1. Con un mes de anterioridad a la expiración de su mandato, el Consejo de Gobierno convocará elecciones a Rector.

2. Si el cese fuera por alguno de los otros supuestos contemplados en el artículo 250 de los Estatutos, la convocatoria se realizará en el plazo máximo de 20 días hábiles después del cese.

3. El Acuerdo del Consejo de Gobierno no tendrá efectos hasta su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

CENSOS ELECTORALES

***Artículo 9***

1. La Secretaría General, a la vista del listado que le proporcionen los servicios de personal y de Gestión Académica, elaborará un censo electoral provisional y ordenará su publicación en el tablón oficial de anuncios del Rectorado, de los Vicerrectorados de Campus y de todos los Centros, durante el plazo previsto en el calendario electoral aprobado por el Consejo de Gobierno. El censo también se publicará en el moderador de la UPV/EHU.

2. Las reclamaciones contra las posibles omisiones o inexactitudes que se adviertan en el censo provisional deben formularse ante la Comisión electoral general en el plazo fijado en el calendario electoral y deberán ser presentadas en el Registro General de la Universidad. La Comisión electoral general resolverá las reclamaciones en el plazo máximo de cuatro días hábiles, al cabo de los cuales aprobará definitivamente el censo y ordenará su publicación.

HAUTESKUNDE BARRUTIAK

*10. artikulua.–*

1. Errektorea hautatzeko hauteskundeetan, irakasle eta ikertzaileentzat (a eta b hauteskunde taldeak) hauteskunde barrutia ikastegia izango da.

2. Ikasleentzako hauteskunde barrutia ikastegia izango da. Doktoregoko eta berezko tituluetako ikasleen kasuan, programaren ardura daukan sailaren egoitzari dagokion ikastegia. Giza Zientzietako ikasleen kasuan, berriz, eskolak emateko erabiltzen den lekua.

3. Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalarentzat (AZP) EHUko hiru campusak izango dira hauteskunde barrutia.

HAUTESKUNDE MAHAIAK

*11. artikulua.–*

1. Unibertsitateko talde bakoitzeko eratu behar den hauteskunde mahai kopurua Hauteskunde Batzorde Nagusiak zehaztuko du.

2. Hauteskunde mahai bakoitzak mahaiburu bat eta hiru mahaikide izango ditu. Edozelan ere, bi mahaiburu (titularra eta ordezkoa) eta sei mahaikide (3 titular eta 3 ordezko) izendatuko dira, behar bezala ordenatuta. Horiek guztiak barrutiko hautesleen artetik, eta, egoki denean, kasuan kasuko hauteskunde taldeetako kideen artetik, aukeratuko dira barrutiko Hauteskunde Batzordeak egindako zozketaren bidez. Ez da zozketan sartuko hautagai izateko onartutakorik.

3. Giza Zientzietako titulazioaren kasuan, hauteskunde mahairako zozketa Hauteskunde Batzorde Nagusiak egingo du.

4. Hauteskunde Mahaiko kide izatea egokituz gero, nahitaezkoa da eginkizun hori betetzea, behar bezala egiaztatutako bidezko arrazoirik izan ezean. Horrelakoetan, idatzi bidez egin beharko zaio uko izendapenari, idatzia hauteskunde batzordeko idazkariari zuzenduta eta izendapenerako jakinarazpenean zehaztutako epearen barruan.

5. Mahaia eratzean ez bertaratzeak erantzukizunak eskatzea ekar dezake, eta horrelako egoeratan, Hauteskunde Mahaiko buruak edo, hala egokituz gero, Hauteskunde Batzorde Nagusiko buruak, hautesleen artetik berak nahi duena aukeratuko du.

6. Hauteskunde Mahaiaren zereginak izango dira botazioaren lekuko izatea, ordena jagotea, prozesua garbia izan dadin zaintzea, hauteskundeen arauak bete daitezen arduratzea eta botoak zenbatzea.

DEMARCACIONES ELECTORALES

*Artículo 10*

1. Para la elección a Rector por el personal docente e investigador (cuerpos electorales a y b) la demarcación será el centro.

2. La demarcación electoral para los alumnos será el centro. En el caso de los alumnos de doctorado y títulos propios será el centro en el que se encuentra la sede del Departamento en el que desarrollan su programa. En el caso de los alumnos del título universitario de Ciencias Humanas será la sede en la que se imparten esas enseñanzas.

3. La demarcación electoral del personal de administración y servicios (PAS) será cada uno de los tres Campus que integran la UPV/EHU.

MESAS ELECTORALES

*Artículo 11*

1. La Comisión electoral general determinará el número de Mesas Electorales que han de constituirse por cada uno de los sectores de la Comunidad Universitaria.

2. Cada Mesa electoral estará formada por un presidente y tres vocales. No obstante, se designarán dos presidentes (titular y suplente) y seis vocales (3 titulares y 3 suplentes) debidamente ordenados. Todos ellos serán designados por sorteo, realizado por la Comisión electoral de cada demarcación, de entre las personas electoras pertenecientes a esa demarcación y, en su caso, al sector correspondiente. No entrarán en el sorteo las personas que hayan sido proclamadas previamente como candidatos.

3. En el caso de la titulación de Ciencias Humanas el sorteo de los miembros de la Mesa Electoral se hará por la Comisión electoral general.

4. La condición de miembro de una Mesa Electoral es irrenunciable salvo que concurra justa causa debidamente acreditada, mediante escrito remitido al Secretario de la Comisión electoral correspondiente, en el plazo que se determine en el escrito de notificación de su designación.

5. La inasistencia a la constitución de la Mesa determinará la exigencia de responsabilidad, y los ausentes podrán ser suplidos por libre designación del presidente de la Mesa Electoral, o en su caso de la Comisión electoral general, entre los electores.

6. Las funciones de la Mesa electoral serán presidir la votación, conservar el orden, velar por la pureza del sufragio y el cumplimiento de las normas electorales y realizar el escrutinio.

HAUTESKUNDE MAHAIA ERATZEA

*12. artikulua.–*

1. Mahaiburua eta mahaikideak, titularrak zein ordezkoak, botazioa hasteko ordua baino ordubete lehenago bilduko dira botazio lekuan, mahaia eratzeko eta dagozkien eginkizunak betetzeko.

2. Hauteskunde Mahaiko titularren bat ez bada bertaratu zehaztutako orduan, ordezkoak hartuko du haren lekua.

3. Mahaia eratzeko nahitaezkoa izango da mahaiburua eta bi mahaikide bertan izatea. Botazioa egin bitartean, gutxienez mahaiko bi kide egon beharko dira bertan.

4. Mahaiko zenbait kide bertaratu ez direlako ezinezkoa bada mahaia eratzea, bertan daudenek unean bertan emango diote egoeraren berri Hauteskunde Batzordeari, haren ustez egokien diren pertsonak aukera ditzan mahaia eratzeko, edo ikastegiko dekano edo zuzendariaren esku utz dezan ardura hori.

5. Ikuskariak botazioa hasteko zehaztutako ordua baino 30 minutu lehenago bertaratu beharko dira. Mahaiburuak ikuskarien agiriak hartu eta mahaia eratzeko aktari erantsiko dizkio. Ikuskariak berandu badoaz eta heldu orduko mahaia eratzeko akta eginda badago, ezin izango dute prozesua ikuskatu.

6. Mahaia eratzeko akta mahaiburuak, mahaikideek eta ikuskariek bete beharko dute Hauteskunde Batzorde Nagusiak emandako eredua erabilita.

HAUTESKUNDE MAHAIAREN ERABAKIAK

*13. artikulua.–*

1. Mahaiak botoen gehiengo soilaz hartuko ditu erabakiak, eta berdinketarik egonez gero, mahaiburuaren botoak erabakiko du.

2. Hauteskunde prozesuan gorabehera larririk gertatuz gero, mahaiburuak Hauteskunde Batzorde Nagusiari jakinaraziko dio lehenbailehen, eta, gainera, horren berri jaso beharko du aktan.

IKUSKARIAK

*14. artikulua.–*

1. Hala nahi duten hautagaiek ikuskari bat proposatu ahalko dute mahai bakoitzeko. Ikuskaria kasuan kasuko mahaiko hauteslea izan beharko da.

CONSTITUCIÓN DE LAS MESAS ELECTORALES

*Artículo 12*

1. El presidente y los vocales, titulares y suplentes, se reunirán una hora antes de la señalada para el comienzo de la votación en el local correspondiente, a fin de proceder a la constitución de las Mesas y cumplir sus obligaciones electorales.

2. Si alguno de los miembros titulares de la Mesa Electoral no comparece a la hora prevista, será sustituido por el correspondiente suplente.

3. En ningún caso podrá constituirse la Mesa Electoral sin la presencia del presidente y los dos vocales. Durante el transcurso de la votación deberán estar presentes, al menos, dos de los miembros de la Mesa.

4. Si por incomparecencia de algunos de los miembros de una Mesa no fuese posible su constitución, quienes se hallen presentes lo pondrán en inmediato conocimiento de la Comisión electoral, que podrá designar libremente las personas más idóneas para garantizar la elección, o encomendar dicha designación a los Decanos o Directores de centro.

5. Los Interventores de Mesa deberán concurrir 30 minutos antes de la hora fijada para el inicio de la votación. El presidente recibirá las credenciales de los interventores que concurran, haciéndolo constar en el Acta de Constitución de la Mesa. Si los interventores se presentaran en la Mesa después de la hora señalada y una vez cumplimentada el Acta de Constitución, no podrán ejercer su función interventora.

6. El Acta de Constitución de la Mesa se deberá cumplimentar por el presidente, vocales e interventores antes del inicio de la votación, según el modelo que apruebe la Comisión electoral general.

ADOPCIÓN DE LOS ACUERDOS POR LAS MESAS ELECTORALES

*Artículo 13*

1. Los acuerdos que deba adoptar la Mesa se tomarán por mayoría simple de votos, resolviendo los posibles empates el voto de calidad del presidente.

2. El Presidente dará cuenta inmediata a la Comisión electoral general de cualquier incidencia que dificulte el normal desarrollo de la sesión electoral, haciéndola constar, además, en el acta correspondiente.

INTERVENTORES

*Artículo 14*

1. Los candidatos que lo deseen podrán proponer el nombramiento de un interventor por cada Mesa Electoral, que habrán de tener la condición de electores de la misma.

2. Ikuskariak izendatzeko eskariak Hauteskunde Batzorde Nagusiari bidali beharko zaizkio, hautagaiak behin betiko aldarrikatu eta hurrengo bi egunen barruan. Ikuskariak izendatzeko eskarian proposatu nahi diren ikuskarien izen-deiturak, helbidea eta telefonoa eman beharko dira, eta horrekin batera interesatuek sinatutako onarpen idatziak aurkeztu.

3. Hauteskunde Batzorde Nagusiak, baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren, bakoitzaren izendapena egingo du, bi kopiatan. Ikuskariak aleetako bat mahaiko buruari emango dio eta hark mahaia eratzeko aktari erantsi.

HAUTAGAIAK AURKEZTEA

*15. artikulua.–*

1. Hautagaitzak hautagaiak berak sinatutako idatzi bidez aurkeztu beharko dira, hautagaiaren izen-abizenak adierazita eta Hauteskunde Batzorde Nagusiari zuzenduta.

2. Hautagaiek hautagai izateko lege xedapenetan jasotako baldintza guztiak bete beharko dituzte, horien artean, klaustrokideen %10ek sinatutako bermea.

3. Errektore izateko hautagaiek programa eta gobernu taldearen egitura eta osaera, zehaztuta nortzuk izango diren errektoreordetza gehienen eta Idazkaritza Nagusiko karguen ardura izango dutenak.

4. Hautagai zerrendak aurkezteko idatzia EHUko Erregistro Orokorreko bulegoetan aurkeztu beharko da, Gobernu Kontseiluak onartuko duen egutegiari jarraiki.

5. Hautagaitza bertan behera utzi nahi izanez gero, Hauteskunde Batzorde Nagusiari zuzendutako idatzia aurkeztu beharko da Erregistro Nagusian, botoa aldez aurretik emateko zehaztutako epea bukatu baino gutxienez 24 ordu lehenago.

HAUTAGAI ZERRENDAK ALDARRIKATZEA

*16. artikulua.–*

Hauteskunde Batzorde Nagusiak, hautagaiek baldintza guztiak betetzen dituztela behin egiaztatuta, hautagaien behin-behineko zerrendak aldarrikatuko ditu, Gobernu Kontseiluak onartutako egutegiari jarraituz. Hautagaiak behin-behinekoz aldarrikatuta, inpugnazioak aurkeztu ahal izango dira unibertsitateko Erregistro Orokorrean, hauteskundeen egutegian horretarako zehaztuko den epean. Hauteskunde Batzorde Nagusiak inpugnazioak ebatzi, hautagai zerrendak behin betiko aldarrikatu eta agindua emango du beroriek ikastegi bakoitzeko iragarki oholean, bai eta iragarki ohol informatikoaren bidez ere, argitaratzeko.

2. Las solicitudes de designación de los interventores deberán dirigirse a la Comisión electoral general, en el plazo de los dos días siguientes a la proclamación definitiva de candidatos. En el escrito de solicitud deberán indicar el nombre, apellidos, dirección y teléfono de contacto de los interventores propuestos y, acompañarán, el documento de aceptación de la designación como interventor, firmado por el interesado.

3. La Comisión electoral general comprobadas las condiciones, extenderá el correspondiente nombramiento por duplicado. Uno de los ejemplares se entregará por el interventor al presidente de la Mesa y se adjuntará al Acta de Constitución de la Mesa.

PRESENTACIÓN DE CANDIDATURAS

*Artículo 15*

1. La presentación de candidaturas se hará mediante escrito firmado por el candidato y dirigido al presidente de la Comisión electoral general en el que se expresará el nombre y apellidos del candidato

2. Los candidatos deberán reunir todas y cada una de las condiciones de elegibilidad prescritas por las disposiciones legales, entre las que deberá figurar el aval firmado de al menos un 10% de los claustrales.

3. Los candidatos a Rector deberán presentar por escrito su programa electoral y la estructura y composición de su equipo de gobierno especificando los responsables nominales de una mayoría de Vicerrectorados y de la Secretaría General.

4. El escrito de presentación de candidatos será entregado en las oficinas del Registro General de la UPV/EHU, en el plazo previsto por el calendario aprobado por el Consejo de Gobierno.

5. La persona candidata que desee retirar su candidatura deberá hacerlo mediante escrito presentado en el Registro general y dirigido al Presidente de la Comisión electoral general con una anterioridad de 24 horas al plazo previsto para el depósito de voto.

PROCLAMACIÓN DE CANDIDATURAS

*Artículo 16*

La Comisión electoral general, una vez comprobadas las condiciones de elegibilidad, procederá a la proclamación provisional de los candidatos, de acuerdo con el calendario aprobado por el Consejo de Gobierno. Efectuada la proclamación provisional, se podrán presentar impugnaciones en las oficinas del Registro General de la Universidad, en el plazo al efecto señalado en el calendario electoral. La Comisión electoral general resolverá las impugnaciones, efectuando la proclamación definitiva de candidaturas y ordenando su publicación en el tablón de anuncios oficial de todos los centros de la UPV/EHU, así como en el Tablón de anuncios informático de la Universidad.

Aldarrikatutako hautagai zerrendak ikusgai egongo dira gutxienez botazio egunera arte.

HAUTESKUNDE KANPAINA

*17. artikulua.–*

1. Hautagai zerrendak behin betiko aldarrikatzen direnetik botaziorako 24 ordu falta diren arte, hala nahi duten hautagaiek hauteskunde kanpaina egin ahal izango dute.

2. EHUko Estatutuetako 249.2. artikuluan jasotakoa betetzeko, Unibertsitateak (zerbitzu nagusien kasuan Gerentziaren bidez, eta ikastegien kasuan dekano eta zuzendarien bidez) hauteskundeetako ekintzak egiteko behar dituzten lokalak utziko dizkie errektore izateko hautagaiei, horretarako eskaririk eginez gero. Edozelan ere, hautagai bakoitzak goiz edo arratsalde batez baino ezin izango du erabili ikastegi bakoitzeko gradu aretoa edo areto nagusia.

3. Ikastegi guztietan iragarki ohol bereziak jarriko dira hauteskundeetako propagandarako.

4. Hauteskunde sasoian, webgunean ere izango da txoko bat hauteskundeei buruzko gorabeherak iragartzeko. Iragarki ohol horretara erakundeak berak edo hautagaiek baino ez dute izango sarbiderik. Hautagaiek edo berariaz izendatutako kideek gainbegiratuko dituzte gune horretan jarriko diren iragarkiak, eta sarrera mugatua izango da (errektore izateko hautagaiek baino ezin izango dituzte jarri iragarkiak). Botoa eskatzeko ezin izango da erabili erakundeak sareko komunikazioetarako daukan gainontzeko baliabiderik. Erabiliz gero, hautagai horrek debekatuta izango du EHUk hauteskundeetako kanpaina egiteko jarri dituen iragarki oholak erabiltzea kanpainak irauten duen bitartean.

5. Hautagaiek hautesle zerrenda osoaren kopia bat izateko eskubidea izango dute. Hautagaiei ez zaie aldez aurretik boto txartelik emango botazio eguna baino lehen banatzeko.

6. Errektore izateko hautagaiek «pdf» formatuan aurkeztu beharko dituzte programak, eta nahi izanez gero, bi hizkuntzetan; horrelakoetan, aparteko bi dokumentu osatu beharko dira, bata gaztelaniaz eta bestea, euskaraz (www.ehu.es/elecciones; www.ehu.es/hauteskundeak).

7. Errektore izateko hautagaiek beren programako oinarrizko puntuen berri eman dezaten, Unibertsitateak gehienez ere 10.000 euroko diru laguntza emango dio bakoitzari; laguntza jaso ahal izateko, justifikatu egin beharko da egindako gastua. Hautagaiek gehienez ere kopuru hori gastatu ahal izango dute kanpainan, eta, debekatuta egongo da erakundearen fondoak, kargu akademikoei esleituak, erabiltzea kanpairako.

Las listas de los candidatos proclamados permanecerán expuestas al menos hasta la fecha de votación.

CAMPAÑA ELECTORAL

***Artículo** 17*

1. Desde la proclamación definitiva de candidatos y hasta veinticuatro horas antes del día de la votación, aquellos candidatos que lo deseen podrán realizar campaña electoral.

2. En aplicación de lo dispuesto en el artículo 249.2 de los Estatutos de la UPV/EHU, la Universidad, a través de la Gerencia, en el caso de los servicios generales, y de los Decanos y Directores de los diversos centros, pondrá a disposición de los candidatos a Rector que lo soliciten el local o locales necesarios para la realización de cualquier acto electoral. En cualquier caso, la reserva de una Sala de grados o de un Salón de Actos no podrá exceder de una mañana o una tarde por cada centro y candidato.

3. En todos los centros se habilitarán tablones oficiales de anuncios para la exposición de propaganda electoral.

4. Durante el período electoral se habilitará un tablón de anuncios electoral accesible vía web. Este tablón dispondrá de varias entradas, una institucional más una por cada candidato. Los candidatos o personas que designen moderarán los anuncios que se inserten en ese tablón de anuncios electoral que será restringido (sólo podrán insertar mensajes los candidatos a Rector). No se podrán utilizar otros medios de la red de comunicaciones corporativa para solicitar el voto. Si así lo hiciera, vería revocados sus privilegios de acceso a los tablones de anuncios electorales de la UPV/EHU durante el período de la campaña electoral.

5. Los candidatos podrán disponer de una copia del censo electoral completo. No se facilitará a los candidatos papeletas de voto para su distribución anticipada.

6. Los candidatos a Rector podrán facilitar su programa electoral bilingüe que deberá presentarse en formato «pdf» separando en documentos distintos el texto en euskera y el texto en castellano (www.ehu.es/elecciones; www.ehu.es/hauteskundeak).

7. Para que los candidatos a Rector puedan difundir los puntos esenciales de su programa de gobierno, la Universidad subvencionará a cada uno de ellos con un máximo de 10000 euros contra justificación del gasto efectuado. Ningún candidato podrá gastar en la campaña mas de esta cifra, así mismo, queda prohibido el uso de fondos institucionales, adjudicados a los cargos académicos, para la campaña de los candidatos.

8. Kanpaina ezin izango da finantzatu kanpoko erakundeen bidez, eta propagandarako onartuko den ikur bakarra Unibertsitatekoa izango da.

9. Kasuan kasuko hauteskunde batzordearekin ados jarrita, ikastegi bakoitzeko ikasle kontseiluak, Unibertsitatekoarekin batera, ikastegi bakoitzean eskola ordu bat izango du bere zereginak betetzeko eta hauteskundeen arrazoia eta horien garrantzia azaltzeko. Ordu horretan ez da eskola jarduerarik egingo eta gela egoki bat izango dute zeregin hori betetzeko. Ezin izango dute, inolaz ere, tarte hori erabili hauteskunde kanpaina egiteko, ez eta hautagai baten alde egiteko ere.

10. Errektoreak Unibertsitateko Klaustrorako ezohiko deia egingo du, hautagaiek beren programak aurkeztu eta eztabaida ditzaten. Klaustrokideek hautagaientzako galderak prestatu ahal izango dituzte 20 klaustrokideren sinaduren babesarekin; galderok Klaustroa baino gutxienez 48 ordu lehenago aurkeztu beharko dituzte.

11. Hautagai guztiek baldintza berberetan egin dezaten hauteskunde kanpaina, errektore kargurako hautagaiak irakasle eta ikerlari legez dituzten eginkizunetatik libre egongo dira, hautagai zerrendak behin betiko aldarrikatzen diren unetik hasi eta lehenengo bozketa egin arte; bigarren txanda egin behar izanez gero, bigarren txanda horretara doazen hautagaiak bigarren bozketa egin arte egongo dira eginkizunetatik libre. Kasuan kasuko sailak eskolak behar bezala emateko beharrezko diren neurriak hartuko ditu.

## IV. TITULUA. BOTAZIOA

## BOTOA EMATEKO PROZEDURA

### *18. artikulua.–*

1. Botoa emateko txartel ofizialak eta gutunazalak Hauteskunde Batzorde Ofizialak onartuko ditu. Hautagai zerrendak aurkeztu aurretik, aipatutako batzordeak txartel ofizialen diseinua onartu ahal izango du.

2. Errektorea hautatzeko hauteskundeetan hautagai bakarrari eman ahal izango zaio botoa.

3. Botoa emateko ordutegia goizeko 10:00etan hasi eta arratsaldeko 19:00ak artekoa izango da, etenik egin gabe.

4. Euren burua identifikatzeko, hautesleek agiri argazkidun hauetako bat aurkeztu beharko dute: nortasun agiria, pasaportea, EHUko txartela edo gidabaimena.

5. Mahaiko kideek begiratuko dute ea botoa ematera etorri den pertsona dagokion erroldan dagoen. Horren ostean, hautesleak boto txartela emango dio mahaiko buruari edo dagokion mahaikideari, eta berak boto kutxan sartuko du segituan.

8. No se permitirá financiación por parte de organismos externos ni logotipos distintos del de la propia Universidad en la propaganda electoral.

9. El Consejo de estudiantes de cada centro junto con el de la Universidad contará previo acuerdo con la Comisión electoral correspondiente, con una hora lectiva por centro para el cumplimiento de sus tareas, explicar el motivo de las elecciones y su importancia. En esa hora se paralizará la actividad docente y se dispondrá de un local adecuado a las necesidades. En ningún caso se podrá hacer uso de ese tiempo para hacer campaña electoral o apoyar de cualquier modo a algún candidato.

10. El Rector convocará una sesión extraordinaria del Claustro de la Universidad para que los diversos candidatos puedan presentar y debatir con el Claustro sus programas. Los Claustrales podrán presentar preguntas a cualquiera de los candidatos, avaladas por 20 firmas y con 48 horas de antelación a la celebración del Claustro.

11. Con el fin de garantizar la igualdad de condiciones en el desarrollo de las respectivas campañas electorales, los candidatos a Rector quedarán libres de sus obligaciones docentes e investigadoras desde el momento de proclamación definitiva de los candidatos hasta la celebración de la primera votación y, en el caso de que se celebre una segunda votación, hasta la celebración de la misma para aquellos dos candidatos que se presenten. El Departamento adoptará las medidas que garanticen la impartición de la docencia.

## TITULO IV. VOTACIÓN

## DESARROLLO DE LA VOTACIÓN

### *Artículo 18*

1. El modelo oficial de papeletas de votación, y en su caso de sobres, será aprobado por la Comisión electoral general. Con carácter previo a la presentación de los candidatos la citada Comisión podrá aprobar el diseño general de la papeleta.

2. En las elecciones a Rector sólo podrá votarse a un candidato.

3. La votación se iniciará a las 10.00 horas y continuará sin interrupción hasta las 19.00 horas.

4. Los electores acreditarán su identidad en el momento de la votación mediante el documento nacional de identidad, el pasaporte, el carné de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, o el carné de conducir en el que conste la fotografía.

5. El votante, una vez comprobada por la Mesa su inclusión en el censo correspondiente y acreditada su identidad, entregará la papeleta al presidente o al vocal correspondiente, el cual la introducirá acto seguido en la urna.

6. Mahaiko kide batek botoa eman duten hautesleak markatuko ditu dagokion zerrendan, mahaiko buruak edo mahaikideak txartelak boto kutxan sartu ahala.

7. Botazioa amaitzeko ordua heltzean, mahaiko buruak botazioa amaitzera doala iragarriko du ozen, eta ez dio inori gehiago gelan sartzen utziko. Dena dela, barruan daudenetako batek artean botorik eman ez badu, utzi egingo dio botoa ematen. Hurren, ikuskariek eta mahaikideek emango dute botoa, nahi izanez gero.

8. Boto txartela aukeratzeko edo mahaiko buruari emateko ezintasunen bat daukatenek konfiantzako pertsona baten bidez egin ahalko dute.

BOTOA ALDEZ AURRETIK EMATEA

*19. artikulua.–*

1. Botazio egunean bere hauteskunde barrutian egoterik ez dutenei bertan parte hartzea errazteko asmoz, ikastegietako zuzendaritzek eta campusetako gerenteordeek botoa aldez aurretik ematea onartuko dute, botazio eguna baino lehenagoko hiru egun baliodunetan, behar den ziurtagiria emanda. Ikastegietan lan egiten duten administrazio eta zerbitzuetako langileek kasuan kasuko ikastegian eman ahal izango dute botoa aldez aurretik, AZPkoen Hauteskunde Batzordeak onartuko duen prozedurari jarraiki.

2. Boto horiek gutunazal ofizial itxian bidali beharko dira. Gutunazal itxi hori eta NANaren fotokopia bat beste gutunazal batean sartu beharko dira, dagokion mahaiburuari zuzendurik. Gutunazal horren kanpoaldean hauteslearen izen-abizenak eta zein taldetako kidea (arloa) den adierazi beharko da; hautesleak hegalean sinatu eta zinta itsasgarriarekin ondo itxiko du.

